

Eraso sexista baten aurrean salaketa

2017/05/15

Mondragon Unibertsitateak gogor gaitzesten du unibertsitateko bi ikaslek jasan zuten eraso sexista pasa den ostiral goizaldean, hilak 12, Arrasateko taberna batean, San Pankrazio unibertsitate jaiaren ondoren.

Unibertsitatea harreman estuan dago gertakizun horretan nahastutako pertsoekin, eta eskura dituen bitarteko guztiak jarriko ditu gertatutakoa lehenbailehen argitzeko; batetik, ahal duen guztia egingo du eraso honen biktimei laguntzeko, eta bestetik, beharrezko diren neurriak hartuko ditu.

Erabat onartezintzat jotzen dugu gertatzen den edozein eraso edo tratu txar mota, eta dei egiten diogu komunitate unibertsitarioari parte har dezan eraso sexista hau zalatzeko antolatu diren ekitaldietan.

